


/ Nabarmentzekoak

- > 2022ko parte-hartze izaerako aurrekontuetan lehenetsi beharreko zortzi proposamen (2. or.)
- > Bi dirulaguntza-deialdi egin dira herriko jaien etenaldia arintzeko (3. or.)
- > Diru-laguntzen deialdi bakarra onartuta Gizarte Kohesioaren arloko erakundeentzat (4. or.)



*Harreraren diagnostikoa, hiri abegikor eta anitza eraikitzeko beste urrats bat (4. or.)

Kontzertua. Hilak 19, larunbata, 19:00etan, Muxikebarrin (Ereaga aretoa), Bulegok "Ilun dagoen arren" aurkeztuko du. Sarrera: 8€.

**A-
GENDA**

Haurrentzako antzerkia. Hilak 20, igandea, 16:30ean eta 19:00etan, Muxikebarrin (Ereaga aretoa), "Liluragarria, gorputz barrura goaz", Ene Kantaken eskutik. Sarrera: 8€.

Surf Irekia egitasmoa, surf inklusiboa dibertsitate funtzionala duten pertsona guztientzat

3DLAN eta Jaiki Surf Eskola enpresek, Getxon eta Sopelan egoitza dutenak, hurrenez hurren, Surf Irekia edo surf inklusiboa izeneko proiektua jarri dute martxan, dibertsitate funtzionala duten pertsona guztientzat. Proiektuak BEAZ-Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Getxoko eta Sopelako Udalen laguntza du, besteak beste. Egitasmo horren bitartez, 2021ean protokoloak, metodologiak eta materialak garatzen dituzten proiektuak gauzatuko dituzte, dibertsitate funtzionala duten pertsonen surfa eta bere abantailak hurbiltzeko, bekadun eskolen bidez, ongizatea eta bizi-kalitate hobea eskaintzen baitituzte. Arrietara (Sopela) eta Plentziako hondartzetan garatuko da egitasmoa.

Joan den asteartean, hilak 8, Bilbo-ko Itsas Museoa egindako aurkezpenean Amaia Agirre alkateak adierazi zuenez, surfaren industria garatzen ari den garapen ekonomikoaren testuinguruan "Getxo ez da atzean geratuko. Era berean, partai-



de izan nahi du, bere enpresei laguntza eta elkarlanerako espazio berritzaileak eskainiz, inauguratu berri den Getxo Itsas Hub esaterako, Surf Irekia bezalako proiektuak garatzeko. Getxoko surf inklusiboa errealitate bat izatea nahi dugu, eta gure hiriko kirol-eskaintzaren parte izatea, eskola-kirolaren oinarrian, kirol-klubetan...". Proiektuaren bi erakunde susta-

tzaileak, 3DLAN (irabazi asmorik gabeko erakundea da) eta Jaiki Surf Eskola, BEAZek antolatutako eta Getxoko, Sopelako eta Plentziako Udalek bultzatutako Boot Camp delakoaren bidez ezagutzen dira.

Topaketa, itsasoa eta irristatzeaz Bestalde, Getxo Elkartegian hitzal-

di eta bilera labur berriak egingo dira datorren ostegunean, hilak 17, Bizkaiko Itsasoaren eta Irriatzearen Sektoreari Aplikaturako Ekonomia Zirkularra gaiaren inguruan, sektoreko profesionalen zuzenduta eta dohainik. Topaketaren emanaldia ere egingo da online.

Inskripzioak eta argibideak: mini-gascogna@gos-offshore.com.

Getxo Bono kanpaina berria abian ekainaren 18tik aurrera

Ekainaren 18tik aurrera Getxo Bono kanpaina berriaren bonuak erosi eta trukatu ahal izango dira, oraingoan bi modalitatekin: bata Ostalaritzarako eta bestea Merkataritza eta Zerbitzu pertsonal eta aisialdikoetara zuzendutakoa, guztira 600.000€-ko zenbatekoarekin (iaz baino 200.000€ gehiago). Mugituko den negozio-bolumena 1.747.200€-koa izango da.

Bonuak abenduaren 31ra arte erosi eta trukatu ahal izango dira. Gehienez lau bonu erabili ahal izango dira erosketa/zerbitzu bakoitzeko, eta ez dago bonu-mugarik pertsona bakoitzeko.

Berrikuntza gisa, atxikitako establezimenduek eta Romo Kultur Exeko Getxo Lagunkoia progra-



maren arduradunek bonuak erosten lagunduko diete adinekoei, eta nola erabili ere azalduko diete. Ostalaritzarako bonuak kanpainari atxikitako establezimenduetan soilik erosi ahal izango dira. 20€-ko 5.720 bonu egongo dira salgai 30€ gastatzeko, eta 10€-ko beste 5.760 bonu 15€ kontsumitzeko, bi kasuetan, kontsumizio batean edo batzuetan, beti ere establezimendu berean.

Bestalde, Merkataritzarako eta Zerbitzuetarako bonuak www.getxobono.eus webgunean soilik erosi ahal izango dira (hilaren 18tik aurrera). 34€-ko 21.840 bonu (50€ kontsumitzeko) eta 17€-ko 15.840 bonu (25€ gastatzeko) egongo dira salgai.



EKAINAK 10 OSTEGUNA

2022ko Aurrekontu Parte-hartzaileak. Bigarren faseko bozketariaren hasiera. Ekainaren 24ra arte. Argibide gehiago: <https://bit.ly/3fTu929>

EKAINAK 11 OSTIRALA

Kontularien Kluba. 2020/21 denboraldiaren amaiera. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean, ipuin-kontalaria izan edo entzun nahi duten nagusiekin osatutako saioa. Oraingoan, "Cuentos mínimos". Gaztelaniaz. Sarrera dohainik, edukiera bete arte.

EKAINAK 12 LARUNBATA

Diziplina anitzeko arte-ikus-kizuna. Romo Kultur Etxean, 19:00etan, arte erakustaldia. Horretan, Kultur Etxeak 2021eko Programazio Artistikoko deialdiaren barruko Garrobiren "Geroak-Futuros" proiekturako jasotako arte-proposamenak erakutsiko dira. Sarrera dohainik, edukiera bete arte.

Ingurumen Aretoa. 10:30-12:00 eta 12:00-13:30h. Itsasoari buruz bildutako jolasak (Trivial, Memory, Mimika...). 3 urtetik aurrera. www.ingurumenaretoa.getxo.eus

EKAINAK 13 IGANDEA

Dantza. Muxikebarrin (Ereaga aretoa), 19:00etan, "Gauekoak", Kukai Dantzaren eskutik. 10€.

Ingurumen Aretoa. 10:30-11:45 eta 12:15-13:30. Txiki tailerra: "Egin ezazu zure kandela erleen benetako argizariarekin eta liztor asiatiakoaren tranpa". www.ingurumenaretoa.getxo.eus

EKAINAK 14 ASTELEHENA

Hitzaldia. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Adimen artifiziala". Hizlariak: Santos Pérez Filosofia irakaslea eta Adimen artifizialean aditua eta Luis Arbide ekintzaile antimilitarista eta Ongi Etorri Errefuxiatuak taldeko militantea. Online: <https://labur.eus/2021sinope06> Antolatzailea: Sinope Kultur Elkarte.

EKAINAK 16 ASTEAZKENA

27. Getxoko Dantzaren Astea. Getxo Kultura sare sozialen eta udaleko web orriaren bitartez Escuela Flamenca Las Arenas dantza eskolako ikasleen saioaren bideoa zabalduko da.

Liburu aurkezpena. Romo Kultur Etxean, 19:00etan, "Pasatiempo" poema-liburuaren aurkezpena, bere egilea den Iñigo Larroquerekin. Sarrera dohainik, edukiera bete arte.

EKAINAK 17 OSTEGUNA

27. Getxoko Dantzaren Astea. Getxo Kultura sare sozialen eta udaleko web orriaren bitartez Utopianeko ikasleen saioaren bideoa zabalduko da.

Ipuinaren ordua. Romoko haur liburutegian, 18:00etan, "Over the moon!", Cataplinares esku-tik. Gaztelaniaz. 3-6 urte. Sarrera dohainik, edukiera bete arte.

EKAINAK 18 OSTIRALA

27. Getxoko Dantzaren Astea. Getxo Kultura sare sozialen eta udaleko web orriaren bitartez Estudio Danko dantza eskolako ikasleen saioaren bideoa zabalduko da.

Umorea. Muxikebarrin (Ereaga aretoa), 19:00etan, "Futbolis-TOK", Zuhaitz Gurrutxagarekin. Euskaraz. Sarrera: 10€.

EKAINAK 19 LARUNBATA

Kontzertua. Muxikebarrin (Ereaga aretoa), 19:00etan, Bulegoren "Ilun dagoen arren". Sarrera: 8€.

27. Getxoko Dantzaren Astea. Getxo Kultura sare sozialen eta udaleko web orriaren bitartez Dantzarte, Estudio de Ballet Carmen Vera, Ana Lara Dantza Eskola eta Estudio de Danza Begoña Zabala dantza eskoletako ikasleen saioaren bideoa zabalduko da.

Ingurumen Aretoa. 10:30-11:45 eta 12:15-13:30h. Helduentzako tailerra: Hurbildu "0 waste" mugimendura eta egin argizarizko paper bilgarria. www.ingurumenaretoa.getxo.eus

EKAINAK 20 IGANDEA

Haurrentzako antzerkia. Muxikebarrin (Ereaga aretoa), 16:30ean eta 19:00etan, "Liluragarria, gorputz barrura goaz", Ene Kantaken eskutik. 8€.

Ingurumen Aretoa. 10:15-10:45 eta 11:15-11:45h. Orientazio-jarduera berria (8 urtetik gora). www.ingurumenaretoa.getxo.eus

Ekainaren 24ra arte izango da bigarren faseko bozkatzeko aldia 2022ko parte-hartze izaerako aurrekontuetan lehenetsi beharreko zortzi proposamen

Ekainaren 24ra arte eraman- go da aurrera 2022ko parte- hartze izaerako aurrekontuen bigarren fasea. Onetsitako ildoekin bat etorritik, aurkeztu- tako 966 baliozko proiektueta- tik zortzi lehenetsiko dituzte herritarrek. Horiek aurtengo otsailaren 25etik martxoaren 14ra egin zen lehenengo fasean aurkeztu ziren. Udal teknikariek aztertu ostean, baliozko ekarpenetatik abiatuta interes orokorreko zortzi proposamen zehaztu dira. Horiek gure udalerriko hainbat auzo eta hainbat arlo baz- tzen dituzte. Eta parte hartze izaerako aurrekontuen aurre-

ko prozeduretan egin izan- den moduan, udalak gehie- nez milioi bat euroko parti- da bat gorde du parte hartze izaerako aurrekontu hauei lotutako proiektuak egiteko. Hautatutako proposamenak eta horiek egiteko aurreiku- sitako aurrekontua, honako hauek: parke bat estaltzea (425.000€); berraktabazio so- ziokulturalerako programa berezia (250.000€); Gabriel Ramos Urangako parkea eta bidezidorrak hobetzea (125.000€); kostaldeko pasea- lekuak hobetzea (250.000€); Fadurako trinketea margotu eta egokitzea (20.000€); wifi

sarbidea udalerriko hainbat puntutan (20.000€); femi- nismoaren aldeko kontzien- tzia eta ekintzak sustatzea (12.000€); eta udalerriko bide publikoen inbentarioa egin eta argitaratzea (5.000€).

Parte hartzeko, aurrez aurre- ko kanalak (postontziak eta hautestontziak), bide telema- tikoak (www.getxo.eus/participa webgunearen bidez) edo formularioa eskaneatuta bidali beharko da gobernuirekia@getxo.eus helbide elek- tronikora.

Informazio gehiago: [https:// bit.ly/3pu1AvB](https://bit.ly/3pu1AvB)

Adierazpen instituzionala Kolonbiako egoera dela eta

Udaleko Bozeramalean Ba- tzordeak aho batez onartu zuen, aurreko astean, bat egitea maiatzean Eusko Le- gebiltzarreko Kolonbiako

Bake-prozesua Babesteko Taldearteak eginiko Ko- lonbiako egoerari buruzko adierazpena. Adierazpenak, besteak beste, honako hau

dio: Kolonbiako "kaleetan legez protesta egiten dutenen aurkako errepresio basati eta bidegabea salatzen dugu... Ivan Duqueren Gobernuari eskatzen diogu Kolonbiako he- rritar guztien Giza Eskubideak babesteko eta bermatzeko". Halaber, "Indar Publikoak eragindako indarkeria-gerta- kari guztiak argitzea eskatzen dugu, eta dagozkion erantzuki- zunak zehaztea, bai haien mai- la ofizialetan, bai agindu horiek eman dituzten gobernuetan. Elkartasuna adierazten diegu protestaren kriminalizazioaren ondorioak jasan dituzten eta jasaten dituzten pertsona guz- tiei".

Adierazpenaren testu osoa: <https://bit.ly/3pr97ez>

Berrirekitzeak Getxo Kirolak

Getxo Kirolak-ek Andra Mariko kiroldegia eta Fadurako ikasgelak berriz ireki ditu. Fadurako ikasgelen kasuan, alde aurretik erre- serba eginda erabili beharko da, Getxo Kirolak-en web- gunearen bidez edo jendea- ri arreta emateko bulegora deituta (94 430 80 70). Eta bi txanda ezarri dira: 8:30etik 13:00etara eta 15:30etik 20:00etara (ikasgelen gehie- neko edukiera %60koa da, hau da, 76 plaza erabilgarri). Era berean, Andra Mariko kiroldegia bere ohiko or- dutegia berreskuratu du, eta 8:30etik 21:30era dago zaba- lik, 14:30etik 15:30era itxiz, gelak garbitu eta desinfek- tatzeko (aldagelen edukiera %35ekoa da).



Eskola Foroaren topaketa

Eskolako Agenda 2030 egitasmoan parte hartzen duten Getxo-ko ikastetxeek urteroko topaketa egin zuten Udalarekin pasa den ostegunean, hilak 3, udal Eskola Foroaren esparruan. Bertan, Amaia Agirre alkateari eta Joseba Arregi Ingurumeneko Hiri Zerbitzuetako eta Ingurumen Kalitateko zinegotziari azaldu zizkieten hartu dituzten konpromisoak, baita ikasturte honetan landutako gaiaren inguruan, -garapen jasangarriaren helburuak, plastikoak eta kontsumo arduratsua-, Udalarri egiten dizkieten proposamenak ere. Besteak beste, plastikoaren erabilera murrizteko hainbat ekimen abian jartzeko konpromisoa hartu dute eta gehien birziklatzen dutenei zergak jaitea eskatzen dute.



Bandera Urdina jasota

Bandera Urdina dago jada Ereaga eta Arrigunagako hondartze- tan. Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, Joseba Arregi Inguru- meneko Hiri Zerbitzuetako eta Ingurumen Kalitateko zinego- tziak bandera jaso zuen pasa den ostegunean, hilak 3, Ereagan, ADEAC-FEE Ingurumen Hezkuntzako eta Kontsumitzaileen Elkarteak ematen duen ingurumen-kalitatearen bereizgarria. Ereaga eta Arrigunaga dira berriz bereizgarria duten Bizkaiko bi hondartza bakarrak.



- Neska eskaintzen da astean egun baterako edo birako etxeko lanetarako. Tel.: 678 366 379.

- Lan bila nabil garbitasun eta plantxa beharretarako, espe- rientziarekin. Sara. Tel.: 650 740 110.

- Berreskuratu zure argazkiak, bideoak eta familiaren peli- kulak. Pasatu DVD formatora. Tel.: 630 26 58 75.

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukia- ren egiazko- tasunaren erantzule izango.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizi- tzari lotutako albisteak eta informazioak ager- tzen dira astero. Komunikazioko zinegotzia: Ainhoa Galduroz Zuzendaria: Javier García. Erredaktoreburua: Itziar Aguiar. Erredakzioa: Nekane Ardanza,

Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Uguill kalea z.g., 4. Tel.:94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprentsa@getxo.eus Arte arduradunak: Bostnan Bilbao, S.L. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Lantegi Batuak Fundazioaren egunOn zerbitzua Gordailu legala: BI-388-87

STAFF >

Bi dirulaguntza-deialdi egin dira herriko jaien etenaldia arintzeko

Kultur Etxeak bi laguntza-deialdi jarri ditu abian gizarte-sarea sustatu eta pandemiaren ondorioak arintzeko asmoz. Izan ere, aurten ere ez da herriko jaiak ospatuko. Diruz lagunduko dira aurrez aurrekoak ez diren kultura- eta jolas-jarduerak eta aire zabaleko aste kulturalen programazioa, jai-egunetatik kanpo, indarrean dauden osasun-protokoloak betetz.

Bi ekimen horiek Getxon egoitza soziala duten irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoei irekita daude, eta jaietarako erabili ez diren baliabide ekonomikoekin ordainduko dira, jai-batzordeekin ezarritako konpromisoari erantzunez. Deialdiek, gainera, *Getxo Ekinez 2021* programaren barruan daude.

Jaietan aurrez aurrekoak ez diren jolas- eta jolas-jardueren deialdia, gehenez ere 31.250 eurokoa, kultura-intereseko ospakizun edo ekitaldiak ospatzera bideratuta dago: oroitzapenezko bideoak egin

eta zabaltzea jaiak gizarteratzeko, streaming bidezko ikuskizunak kontratatu eta ematea, online lehiaketak eta merchandising materialen diseinatu eta ekoiztea. Eskaerak aurkezteko epea auzo bakoitzeko jaiak hasi baino 30 egun lehenago itxiko da, San Juan jaiak izan ezik (Andra Mari eta Zubilleta auzoak), horiek hasi baino 10 egun natural lehenago amaituko baita.

Bestalde, jai-egunetatik kanpoko Kultura Asteak egiteko deialdiak 177.490 euroko gehieneko aurrekontua du. Jarduera kultural hutsak antolatzeke da, eta udalerriko auzoetan soilik antolatu ahal izango dira. Honako ekitaldi mota hauek hartzen ditu: kontzertuak, antzezlana, emanaldiak, ikuskizunak, hitzaldiak, bertsolari-saioak, zinema-emanaldiak, lantegiak eta abar, hots, deialdiaren baldintzak betetzen dituzten era guztietako ekitaldiak. Proiektuak aurkezteko epea uztailearen 5era arte egongo da zabalik.

Diru-laguntzei buruzko informazioa: <https://bit.ly/34Zlx3W>

Jon Maya eta "Gauekoak" Muxikebarrin

Gauekoak dantza ikuskizunak, Jon Maya Sein dantzariaren jatorrizko proiektuak, Muxikebarrin Ereaga aretoko agertokia beteko du igande honetan, hilak 13, 19:00etatik aurrera. Sarreraren prezioa 10€koa da. *Gauekoak* proiektua dantzari eta koreografoaren hausnarketa intimo eta pertsonal batetik abiatuta sortu da. Orainetik, barrura begiratzen du, bere sortze-prozesua irekiz. Horretarako, bere ibilbidean eragin handia izan duten



zenbait artista bildu ditu.

Mireia Gabilondoren zuzendaritzapean, dantzariak, Xabi Bandini abeslari eta gitarra-jotzailea eta Arkaitz Miner musikaria (biolina, gitarra, mandolina, ahotsa) izango ditu lagun agertokian, gaueko egunkari moduan sortutako ikuskizuna eskaintzeko, diziplina eta hizkuntza artistiko anitzen bidez.

Dantza Astea sareen bidez ikusgai

Getxoko Dantza Astearen XXVII. edizioko emanaldiak ekainaren 16tik 19ra bitartean ikusi ahal izango dira, Getxo Kulturako YouTube kanalean eta sare sozialetan, baita www.getxo.eus udal webgunean ere. Oraingoan, 9 eta 70 urte bitarteko 540 bat dantzari hartuko dute parte, eta estilo askotako koreografiak interpretatuko dituzte, hala nola dantza modernoa, garaikidea, klasikoa, dancehall, hi-

ri-dantzak, funky, jazz-fusion eta flamenkoa.

Lehen emanaldia, ekainaren 16an, Las Arenas flamenko eskolak eskainiko du eta hurrengo egunean Utopian gunearen txanda izango da. Ostiralean, hilaren 18an, Estudio Danco arituko da eta, azkenik, larunbatean, Dantzarte, Carmen Veraren Ballet Gunea, Ana Lara Dantza Eskola eta Begoña Zabala-ren Dantza Gunea.

"Balkoitik Balkoira"

Datorren ostiralean, ekainak 18, Balkoitik balkoira bertso saioa izango da, Algortako Zabala eskolako karpan, 20:00etan hasita, ALBEk antolatuta. Oraingoan Jone Uria eta Oihana Iguaran bertsolariak hartuko dute parte. 23 urte joan dira lehenengo *Balkoitik balkoira* egin zenetik, 1801eko Villabonako saioa gogoan. Aurtengoan, mugak muga, tradizio luzeari eutsiko diote, baina ekitaldian zerua barik.

Lekua mugatua denez, interesatuek aurretik izena eman beharko dute albegetxo@gmail.com helbide elektronikoko edo 605704385 telefono zenbakiaren bidez. Bestalde, hurrengo egunean, ekainak 19, ALBE Eguna ospatuko da.

Informazio gehiago: www.albe.eus



"Biosferako Erreserbak" erakusketa

Biosferako Erreserbak erakusketa datorren uztailearen 11ra arte egongo da ikusgai Bizkaia Zubian, AXA Fundazioaren eskutik. Erakusketak formatu handiko 65 argazki biltzen ditu, biosferaren erreserba gisa ezagutzen diren paisaia batzuekin, bai estatuan eta baita munduan ere. Irudi ikusgarri moduko bidaia bat da, ingurumenari buruzko kultura arduratsura erreserben bidez hurbiltzen gaituena. Paisaia horiek planetako biodibertsitatea irudikatzen dute.



"Garranblada Geroa(k)"

Garranblada Geroa(k) diziplina anitzeko ikuskizunak, larunbatean, ekainak 12, 19:00etan, Garrobik, Getxoko Artisten Harrobiak antolatutako deialdiaren obra sorta bat eskainiko du Romo Kultur Etxean, Kultur Etxearen programazio artistikoaren barruan. Aukeratutako artistak hurrengoak dira: Ana Capilla (dantza), Ceniza Fragua (musika), Hibernando (bideo proiektzioa), Iñigo Iraultza Iru (performancea), La Baldosa Flotante (musika), Laura Sam (poesia), Mawatres (bideo proiektzioa), Sally Rous (musika) eta Santi Sos eta Ainhoa Pineda (performancea). Sarrerera doan, lekua bete arte.

"FutbolisTOK", umorezko bakarriketa

Zuhaitz Gurrutxaga bakarriketari elgoibartarra bere bigarren lanarekin datorkigu Getxora, *FutbolisTOK*, Errealean lehen mailako jokalaria izan zen garaia abiapuntu hartuta. Ikuskizuna euskara hutsez eskainiko du Muxikebarrin Ereaga aretoan, datorren ostiralean, hilak 18, 19:00etatik aurrera. Sarreraren prezioa 10€koa da. *Confidencias de un Futbolista* bere lehen bakarriketaren pasarte batzuk berreskuratzeaz gain, garai hartako bizipen eta istorio gehiago dakartza gogora Gurrutxagak. Era berean, jendaurrean lehen aldiz, berak izandako nahasmendu obsesibo-konpultsibo gaixotasunaz hitz egingo digu, TOC deritzon gaixotasunaz, hain zuzen

ere. Umorez kontatuta, arazoak erlatibizatzeke nork bere buruaz barre egitea baino modu hoberik ez dagoela erakutsiko digu.



GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA
UDAKO IKASTARO TRINKOAK CURSOS INTENSIVOS DE VERANO 2021

1-23 UZTAILA-JULIO (85 eskola-ordu / horas lectivas)
MAILA GUZTIAK / Todos los niveles

Orduetgia / Horario: 08:00 - 13:30
Aurrematricula ekainaren 25era arte / Prematricula hasta el 25 de junio

2-23 IRAILA-SEPTIEMBRE (48 eskola-ordu / horas lectivas)
B1-B2-C1 (azterketak prestatzeko)

Orduetgia / Horario: 09:00 - 12:00
Aurrematricula uztailearen 23ra arte / Prematricula hasta el 23 de julio

GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA (BIKE eraikina)
Santa Eugenia plaza, 1 (Borroa) Getxo
944 646 299 - euskaltegi@getxo.eus
www.getxo.eus/udal-euskaltegi
www.udal-euskaltegiak.eus/

Getxo **Getxo**

Harreraren diagnostikoa, hiri abegikor eta anitza eraikitzeke beste urrats bat

Harrera, gizarte inklusibo eta anitzak eraikitzeke oinarria: Getxoko hiriaren ikuspegiak eta proposamenak da Udalak egindako harrera diagnostikoaren izenburua, Gloria Rendón (Diversit) migratutako politiketan adituarekin elkarlanean. Helburua da elkartasuna eta kultura-aniztasunaren onarpena sustatzea, abantaila gisa ulertuta, 2020-2023ko Udal Legegintzaldiko Planaren erronken artean jasotzen den bezala, bere ardatz estrategikoetako bat aniztasunean, berdintasunean eta kulturarteko bizikidetzan oinarritutako Getxo hiri abegikorra delako.

Diagnostikoak egiaztatu du Getxoko gizarteak harrera ona egiten diela pertsona migratuei eta errefuxiatuei, eta harrera egokitu egin behar dela iristen diren profil eta proiektu migratzaileen



aniztasunera. Horiei Administrazio Publikoaren zerbitzu eta baliabideetarako sarbidea erraztea garrantzitsua da, baita aholkularitza juridikoa eta lan orientazioa, gune abegikorak eta ahaldun-

tze-elementuak ere. Hizkuntzak irakastea eta erraztea nabarmentzen da (euskara elementu integratzailea izanda) eta genero eta kulturartekotasun irizpideak ere. Ondorioz, zehaztutako gaikako

ardatzak hurrengoak dira: harrera eta Mugikortasun Zerbitzuaren definizioa eta zehaztapena, migrazio-profilen informazioa eta laguntza bultzatzea, aniztasuna ikusaraztea eta gu bat sortzea, eta egindako ekintzen jarraipena eta ebaluazioa egitea.

Partaidetza anitza

Diagnostikoak udalak kulturartekotasunaren, berdintasunaren eta garapenerako lankidetzaren arloan ari diren alderdi politiko, erakunde laguntzaile (bestek beste, Perualde, Getxoko Etorkinak Plataforma Federazioa Amekadi, UNESCO Etxea, Zabalaketa, Aisibizia, Moviltik), pertsona harreragile eta abegitsu askoren ahotsa jaso du.

Diagnostikoa: www.getxo.eus/es/inmigracion

Diru-laguntzen deialdi bakarra onartuta Gizarte Kohesioaren arloko erakundeentzat

Udalak gizarte-kohesioaren arloan diharduten gizarte-erakundeentzen proiektuak indartzeko eta garatzeko diru-laguntzak emateko deialdi bakarra (226.70€) onartu du lehen aldiz. Gizarte-zerbitzuek eta esku-hartze komunitarioaren unitateak (boluntariora, immigrazioa eta kulturartekotasuna sustatzea, adikzioak prebenitzea, hezkuntza, garapenerako lankidetzaren berdintasuna, gazteria eta zahartze aktiboa) osatzen dute Gizarte Kohesioa arloa.

Helburua da gizarteratzea sustatzea, inbertsio publikoaren, lankidetzaren eta gizarte-berrikuntzako irizpideak dituzten gizarte-eragile guztien parte hartzearen bidez. "Proiektuen

ikuspegi interseksionalagoa sortu nahi dugu, ikuspegi feminista, kulturartekoa eta aniztasunak barne hartzen dituen, asoziazionismoa indartuz eta gizarte-kohesio handiagoa sortzen duten garrantzi handiegoko proiektuak finantzatzuz. Gainera, esparru berriak ere sartzeko, hala nola zahartze aktiboa, adikzioak prebenitzea eta emozioak kudeatzea, eta balioetan hezteak", azaldu du Carmen Diaz Gizarte Kohesio zinegotziak.

Eskabideak aurkezteko epea hila betekoa izango da, deialdia BAOan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskabideak Administrazio Elektronikoko Bulegoan aurkeztu beharko dira (www.getxo.eus) eta legeak aurreikusitako lekuetan.

Izadi Gutiérrez Lizarraga neskatoaren eskubideen aldeko adierazpena

EAJ-PNV, EH-Bildu, PSE-EE eta Elkarrekin Podemos udal taldeek Izadi Gutiérrez Lizarraga neskatoaren eskubideen aldeko adierazpena sinatu dute. Gaur egun, Aranjuezeko kartzelan bizi da bere gurasoekin, Iñigo Gutiérrez eta María Lizarraga preso getxotarrak. Romon aurreko ostiralean, hilaren 4an, sinatutako adierazpenean, lau taldeek adierazi nahi dute "adingabearen egoerarekin kezkatuta daudela, gurasoekin egoteko eskubidea bermatzeko eta, ahal den neurrian, amarekin bizi ahal izateko eskatzen dute, bere familia-inguruetik banandu gabe". Halaber, "Es-

petxeetako Instituzioei adingabearen eskubideak hobekien zainduko dituzten neurriak har ditzatela, gurasoekin eta haien familia-ingurunearekin harremanetan egon ahal izateko, eta, hala, Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeetara eraman ahal izatea" eskatzen dute.

Gainera, sinatzaileek konpromisoa hartu dute akordio hau biddaltzeko Auzitegi Nazionaleko Espetxe Erakundeetako idazkari nagusiari eta Espetxe-zaintzako Epaitegiari, pertsona horiek beren jurisdikziopean eta tutoretzapean daudelako.



KZgunea Romo Kultur Etxera joan da

Eusko Jaurlaritzak ematen duen KZgunearen zerbitzua RKEra eraman da, eta bertatik herritarrei teknologia berrien inguruko prestakuntza eskaintzen jarraituko du. Horrekin batera, hainbat izapide egiteko laguntza ere ematen du. "Gainera, kokapen berriak Getxo Lagunkoiko jardueretan parte hartzen duten adinekoen izen-ematea erraztuko du", nabarmendu du Amaia Agirre alkateak, instalazio berrira egindako bisitan. Bere ordutegia 09:00etatik 13:00etara izango da eta interesdunek hitzordua eskatu beharko dute: www.kzgunea.eus/eu/hasiera

Udal Gobernuaren arabera, arloa indartzeko egindako ahalegina nabarmena da

Gizarte Kohesioaren arloko pertsona talde batek haien lan-egoera salatu du

Udaleko Gizarte Kohesio arloan lan egiten duten 12 lagunez osatutako talde batek "hutsik dauden hainbat lanpostu ez betetzeagatik bizi duten egoera" salatu du. "Sailaren egiturazko arazo bat da, urteetan zehar errepikatutako dena, eta pandemia betean punturik larriena lortzera iritsi dena; izan ere, herritarren beharrak handitu egin dira, arloaren gainera presioa areagotuz, eta, arloa indartu beharrean, nabarmen murriztu da, duela hilabete batzuetatik bete gabe dauden hainbat lanposturen ondorioz", adierazi dute prentsa-ohar batean aipatutako langileek. Talde horren esanetan, arloan bizi duten egoera horrek ondoez han-

dia sortzen du langileen artean, gainezka egiten dutelako, eta egoera horren ondorioz ere, getxotarrei oinarritzko prestazioak atzeratzen zaizkie eta kalitatezko zerbitzua eman ahal izateko antolaketa eta planifikazio falta dago.

Bestalde, udal-gobernuak "errespetatu egiten du Gizarte Kohesioaren arloko langile batzuek adierazitako iritzia, alegia, lanarekin atsekabaturik direla; baina ez du iritzi hori partekatzen, ez lan-baldintzei dagokienez, ez arloan ezarritako ordezkapen eta errefortzu ugari dago kienez. Izan ere, Udalak arloaren aurrekontua eta lana indartzeko egindako ahalegina nabarmena da objektiboki".